

ERITXIAK

MEZA-LIBURU BARRIKO KREDOAZ

Sarrera

Luzaro zain egon ondoren, or dogu azkenez euskal Meza-Liburu barria; amaikatxoren gogoa asetzera datorren liburu bikaina. Luze berba egin geinke, eta ondo litzateke gaiñera liburu berezi onetaz kritika onuragarria egitea.

Baiña lantxo onetan, Meza-Liburuaren eta Elizaren testorik garrantzitsuenetariko bati ekingo deusat: Kredoari (formula txikiari). Jakingarria litzateke ze erixpidez egin izan dan itzulpen au. Siñesmen-formula bat beti da garrantzi andi-andikoa, ezin bestekoa eta berba baxotxa zeatz-meatz aztertu bearrekoea da, ze ondorio etorriko aurrez balantza egiñez. Ain zuzen ere euskerazko itzulpenean bada, bai pastoral-teologia aldetik eta baita izkuntza aldetik ere, eztabaidagarri litzateken esamolderik.

Siñesmen-formula batek siñestunen fedea adierazo bearko leuke aalik eta garbien, zaarkituak diran edo errakuntzara eragin leikien esamoldeak baztertuz.

Idazlan onetan, «*infernuetara jatsi*» esaera izango dot bakar-bakarrik aztergai. Egokia ete da esaera au? Zuzena ete da? Komengarria? Gure senari, sentipenari eta siñesmenari dagokiona ete da? Nik neuk zalantzan jarriko neuke.

Bibliaren esanai aldetik teologiari dagokiona da izan, baiña

esamolde orrek zaarkitua dirudi eta okerbidera eragin leike. Batez ere beste bat au baizen legezkoa eta ulergarriagoa dogunean (eta auxe da gure kasua), zer dala ta sartu, ain zuzen ere, desegokia? Orixe da niretzat ulertu eziñekoa.

Esamolde au illun samarra dan ezkeru, Bibliaren eta Elizgurasoen argitan garbi utzi gura neuke. Gero, gaur egunean esamolde ori egokia ala desegokia dan aztertzeru joko dot; au da, Jainkoaren Erriaren fedeari ain loturik dagoen pastoralgintzarako ondo datorren ala ez.

1. Esamoldeak eta Bibliako irudiak

a. *Xeol*. Itaun Zaarrean illen tokitzat edo illen erreñutzat jotzen da *Xeol*. Ustez lurpean dagoen toki au, on eta gaiztoentzat izango litzateke; ildako guztientzat, beraz. Denboraren joan-etorrian on eta gaiztoak bereiztera jo da, eta batzuentzat eta besteentzat egoitza ezberdinak egongo diraneko ustea nagusitu da. (Uste au Lukas Ebanjelariak ere adierazten deusku Lazaroaren eta Epulon aberatsaren pasarteetan).

Erbestaldi ondoren sortu zan batez ere, *Xeol*-en esanaiaaren ondoan, eriotza-osterako zigor-leku bat ere bazalakoaren idea. Toki orretan pekatariak oinazetuak izango ziran. Orixe da egin-eginëan ere *Gehenna* izenak adierazten deuskuna. *Gehenna*-k, beraz, illunpetako eta argirik bagako sutan dan *Xeol*-en zati baten esanaia artu eban. Orrela *Gehenna* *Xeol*-en azpialdeko tokitzat jotzen da, eta eriotz-ostean bein-betiko zigor-leku zana, bein-beiñeko edo denboraldi baterako zigor-leku biurtzen jaku batzutan.

b. *Gehenna*. Arameozko *ge-hinnam* («Enom Arana», Enom-en semearen Arana) berbearen grekozko forma baiño ez da. Bibliako lurraldearen toki zeatz eta mugatu bat jatorriz; baina gerora (ikusiz Isaias) zigor-tokitzat artzen da, bein-betiko zigor-tokitzat artu ere. Alde orretatik, beraz, badau zer-ikusirik *Xeol*-ekin. Itaun Barrian *Gehenna* eta *Xeol*-en ideak kurutzatu egin oi dira.

d. *Hades*. Infernuetako edo lurpe sakoneko, au da: illen erreinuko jainkoaren izena da Hades Greziako mitologian.

LXXak, hebraierazko Xeol Hades izenez itzultzen dabe grekora, eta biak kidekoak, esanai berekoak dira ia beti. Itun Barrian agiri danez, ezilkortasunaz greziarrak eben pentsakerak eragin nabarmena izan dau Bibliako Xeol eta Hades-en billakabidean.

Idea baktxarentzat berba bat ez da emoten Itun Barrian; gitxiago oraindik Itun Zaarrean. Berba berak esanai ezbardiñak izan leikez, alkarren aurkako gauzak adierazteraiño kasu batzutan. Urteen eta mendeen joan-etorrian berba askoren esanaia aldatuz doalako jazoten da ori. Beti-beti ez bada ere, bai geienetan, bereizkuntza oneek egin daitezke:

Leenengotan ildako guztien tokitzat artzen zan Xeol-ek, gerora esanai oneek bereganatzen ditu:

- Illen tokia (Xeol - Hades)
- Bein-betiko zigor-tokia (Gehenna)
- Batzutan Gehenna bera ere bein-beiñeko zigor-toki edo denboraldi batekoa biurtu da.

Orain, kristau liturgiaren leenengo berbak aitatzerakoan, Itun Zaarreko esamoldeak geroko latinezko ze esamolderen kidekoak diran argi uztea komeni da. Oneek dira arakatu nai ditugun esamoldeak: *descendit ad inferos* eta *descendit ad inferna* (edo *ad infernos*).

Xeol (Hades) eta Gehenna muin-muiñean bardintsuak izan arren, bardin-bardiñak ez diranez, gauza berbera esan geinke, oraingo senaren arauera, *ad inferna* eta *ad inferos* esamoldeez ere izkuntzaren aldetik.

Ala ere ñabardura ezbardiñak ditue batak eta besteak. Beraz, andi-andika Xeol eta *ad inferos* (illen erreinua, illen tokia) kidekotzak artuko geunkez; eta Gehenna-ri dagokiona *ad inferna* (infernuetara) izango litzateke. Oar au gogoan izanik, ikusi daiguzan Apostoluen fede-sortan edo fede-autorkuntzako formu-

letan datozen esamoldeak.

II. Kredoa edo Apostoluen fede-sorta

Enchiridion Symbolorum (H. Denzinger-A. Schönmetzer-ena, 32. argitaldia, Barcelona-Freiburg in Bresgau 1963) eskuetan arturik, arin-arin aztertuko ditugu leenengo mendeetan agiri diran esamoldeak:

- a. Leenengo Fedeko Sortetan Kristoren *ad inferna* edo *ad inferos* jasterik ez da aitatzen.
- b. *Symbolum Apostolorum*, mendealdeko formuletan. Erromako leenengo formuletan (III. mendean), Milan-goan (IV. mendean), Ravena-koan (V. mendean), Florenzia-koan (VII. mendean), latin izkuntzadun Afrika-koan (V - VI. mendeetan), egoaldeko Gallia-koan (VI - VII. mendeetan) etab. ez da agertzen inondik esamolde ori. Urrengo esaldian, noiz-beinka, *resurrexit a mortuis* esakera agertzen dala esan bear.

Aquileia-koan (IV. mendean), au da, Tyranius Rufinus-en *Expositio in symbolum*-en leenengoz agiri da «*descendit ad inferna*», fedeko formula azaltzerakoan.

Esamolde ori badator VI - VIII. mendeetako Españaiko formuletan, aldi bereko Frantzia eta Alemaniako formuletan eta baita Erromakoan ere X. mendean; baiña Erromako dotriñak (*Catechismus Romanus*) *ad inferos* esamoldea dakar.

- d. *Symbolum Apostolorum*, ekialdeko formuletan: (III - IV. mendeetan). Leenengo fedeko sortetan legez, emen ere ez da aitatzen esamolde ori. Ejiptoko eta Etiopiako Elizetan onako au agiri jaku: Christus «*liberabit vinctos*».

Eta azkenez Atanasio aizunaren «*Quicumque*» deritxon sortan (jatorriz mendealdekoa) «*descendit ad inferos*» irakurri daiteke.

- e. Elizaren irakaskuntzan

Ormidas Aita Santuak (VI. mendean) «*ad inferna* descen-

dens» diño.

«Descendit *ad inferos*» esaten da ondorengo Kontzilio oneetan: Toledo-ko IV.ean (633. urtean), Erromakoan (745. urtean), Sens-koan (1140. urtean), Letran-go IV.ean (1215. urtean).

Aitatu dagigun azkenez Klemente VIak 1351.ean erabili eban esakera argigarria: Christus «destruxit descendendo *ad inferos* inferiorem infernum».

f. Fedeko sorta guztiotan eta fedeko formulen tradizioan gauza bitxi bat nabari da, Bibliako esamoldeez jardun dogunean somatu dogunaren antzekoa: leenengoetako formuletan ez da aitatzen orrelakorik ezer; gerora, *ad inferna* eta *ad inferos* esamoldeak datoz, eta azkenez, Klemente VIaren esakera argigarria.

III. Zentzunez jokatu bearra eta pastoral-errazoiak

Egia esan, fedeko formuletan esamolde biak legezkoak eta bidezkoak dira (*ad inferna* naiz *ad inferos*); baiña latiñetik gaztelaniara edo euskerara etorri jakuzen berbok, azken aldiotan ere euren jatorrizko esanaiaz irauten daben ala ez jakin bearko litzateke. Ez ete dabe, siñestun geienen ustetan, beste konotazio edo zentzu barriren bat artu? Eta orrela balitz, bata naiz bestea ezelaOri onartu eziña litzateke pastoral aldetik ekarri leikezan ondorioakaitik eta bearrizanak ez dala fededunentzat zalantza-bide izan daitekelako.

(Alemanezko Agur Marian, esate baterako, «Bedeinkatua zara zu andra guztien artean», *andra* alemanez *Weib* esan oi zan, baiña, erabiliaren erabilliz, berba onek zentzu arruntegia artu dau, *eme* esanaia izatera etorritz. Orregaitik izen ori baztertuz, «Frauen» (=andrak = mujeres) sartu da).

Gaztelaniaz naiz euskeraz ugari izango dira onen antzeko adibideak. Niri neuri «hostia» itza bururatzen jat orain bapatean. Berba onek ez dau bere jatorrizko esanaia galdu; euskeraz oso ezaguna da «Ostian bizi zara» eliz-kanta zaarra, baiña biraularien

aotan sarri erabillia dalako, onen ordez beste izen batzuk sartze-ko oitura nagusitu da: *formak* sagaratu bakoak diranean eta *Gure Jauna, Eukaristia* sagaratua danean.

Beste orrenbeste edo antzekoa jazoten da, bizkaieraz beintzat, *gorputz* - *gorpu* izenekin. Biak latinetik eta berba beretik datoz. Alkarketan (itz alkartuetan) bigarrena erabilli bearko litzateke berez, baiña gorputz illaren esanaia dau bizkaieraz, beste euskalkietako «hilotz»en kidekoa.

Beraz, berben eta esanaien auzi au oso korapillotsua da..

Begiratu dagigun gaztelaniazko iztegi arrunt baten *infierno*-s itza, edo euskerazko iztegian *infernu* itza. Itandu dagigun fededunen artean batzuri eta besteri, eta laster erantzungo deuskue, *infernua* il ondoren gaiztoak doazen tokia dala. Orixe da elizgizonen amaikatxo sermoitan *infernua* (*infernuetara*) berbei emon izan jaken esanaia. Eta edozein kristauren gogotan ere, idea orixe besterik ez dago. Beraz, Kristo *infernuetara* jatsi zala esatea, errakuntzei, eta noizbait txisteei ere, bide emotea litzateke. Nire eritxiz, (historiaren eta Bibliaren arauera legezkua izan arren) ez da batere egokia «*infernuetara* jatsi» esamoldea, teologiaren eta historiaren arauera beste bat dogulako au baizen legezko edo geiago oraindik. «Illen tokia» edo «illen erreinua» egokiagotzat ditut, orixe da-ta, ain zuzen, latinezko berba bion esanai benetako. Guk berba utsei ez deutsegu federik emoten; geure ezagupen, sentipen eta senaren arauera, esanguratsuak diran esamoldeei baiño.

Beste aldetik, «ad inferna» eta «ad inferos» dudamudazkoak eta bitara ulertzeak zirala jakiñik, eta oneen esanaia ere batere ez garbia, gaur ain esanai zeatza eta mugatua dauan «*infernuetara*» itzez euskeratzeari ez deritxat egoki, ez izkuntza aldetik eta ezta pastoral eta liturgia aldetik ere.

Barriro diñot ezin dodala ulertu esamolde biren artean, bata zein bestea historiaren eta Bibliaren arauera legezkoak izan arren, zelan autatu dan, egin-eginëan ere, pastoral aldetik desgokiena dana.

IV. Beste izkuntzetako itzulpenak

Beste herri eta izkuntzetan ere itzen eta esanaiei arazo au izan dabe. Orregaitik gure siñesmenari dagokion auzi garrantzi-tsua dan ezkeru, jakingarri litzateke besteak zelan askatu daben korapillo au.

Latin-erriak, adibidez, frantziar eta españarrak, nik neure lan onetan desegokitizat jo dodan esamoldea obetsi dabe.

Frantseseko meza-liburuan kredoa billatuz, esakera au aurkitu neban: «est descendu aux enfers». Lekaima bati itandu neutsan orduan: «Zuretzat zer esan nai dau esakera onek?» Eta erantzuna ez zan batere argia izan, zalantzazkoa eta illuna baiño. Ez ekian zer esan. Biblia eta liturgia eguneroko zera dituan pertsona bategan orrelako zalantzak sortzen baditu, zer izango ete da beste kristiñauengan?

Españan gaztelaniazko itzulpena bardin-bardiña da: «descendió a los infiernos».

Emen garbi dagoena zera da: euskerazko itzulpena gaztelaniaren menpe dagoela. Historiaren arauera zer esan nai dauan edo pastoral aldetik komenigarri dan begiratu barik, gaztelaniaz zer egingo zain gagozela dirudi, geuk ere axe egiteko. Euskera, orrela, nortasun barik geratzen da, gaztelaniaren eta españako gotzaigoaren esanera...

IV. Eukaristi-otoitzean, sagarapenaren ondoren, zera irakurten dogu: «Kristoren eriotzea ta illen lekura jaistea gogoratzen ditugu» (mortem Chr dogun otoitzean?)

Alemania, Austria, Suiza eta beste tokiren batzutako gotzaiñen ardurapean moldatu dan aleman-izkuntzako meza-liburuan, oster, nik emen egokientzat jo dodan esamoldea dator. Frantziar eta españarren antzera, alemanez ere, leen «in die Hölle» (infernuetara) erabiltzen eben, baiña, bear bada, nik emen aitatu ditudan errazoiakaitik, meza-liburu barrian aldatu egin dabe, beste au sartuz: hinabgestiegen in das Reich des Todes» (il-erreñura, eriotzaren erreñura edo illen erreñura jatsi zana). Auxa da, izan ere, LXXak eta Itun Barriak Hades izenez

grekora itzultzen daben Bibliako Xeol-en esanaia.

Zergaitik ez itzuli euskerara ere Alemaniak, Austriak, Suizak eta abarrek egin daben antzera?

V. Euskal itzulpenak

Itzulpen batek bide bat baiño geiago eskeintzen dauanez, beti izan daiteke eztabaidagarri. Or itzultzailearen joera, elburu eta estiloan dago untzea.

Emen euskerazko kredoaren itzulpen ofiziala jarriko dot eta onen aurrez-aurre beste bat neuk asmatua, baiña zazpi berba gitxiago ditutana eta liturgian erabiltzeko errezago gertatuko litzatekena.

Fede-autorkuntza ofiziala

Sinisten dot Jaungoiko Aita aalguztidun,
zeru-lurren egillea.

Sinisten dot Aren Seme bakar
Jesukristo gure Jauna,
Espiritu Santuaren egitez sortu
eta Andra Maria Birjiñagandik jaio zana;
Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;
kurutzean josia,
illa eta obiratua izan zana;
infernuetara jatsi
ta irugarren egunean
illen artetik biztu zana;
zeruetara igon
eta Jaungoiko Aita aalguztidunaren eskui-
aldean
jarririk dagoana;
andik biziak eta illak epaitzera
etorriko dana.

Sinisten dot Espiritu Santua,
Eleiza santu katolikua,
santuen alkartasuna,
pekatuen parkamena,
aragiaren biztuera ta betiko bizitza.
Amen.

Sinisten dot Jaungoikoa,
Aita aalguztiduna,
zeru-lurren egillea.

Eta Jesukristo,
Aren Seme bakar, gure Jauna,
Espiritu Santuagandik sortu,
Maria Birjiñagandik jaioa;
Pontzio Pilatoren menpean oiñazetua,
gurutzean josia, illa ta obiratua;
ILLEN ERREINURA JATSIA,
irugarren egunean illen artetik biztu zana;
zeruetara igon
eta Jaungoiko Aita aalguztidunaren eskui-
aldean
jarririk dagoana;
andik biziak eta illak epaitzera
etorriko dana.

Sinisten dot Espiritu Santua,
Eleiza santu katolikua,
santuen alkartasuna,
pekatuen parkamena,
aragiaren (illen) biztuera
eta betiko bizitza.
Amen.

Julen Urkiza